

thinking Fadura-KO PROIEKTUETAN INPLIKATUTAKO ENPRESA LAGUNTZAILEENTZAKO JARRAIBIDEAK

1. Irizpideak	2
2. Idazkaritza Teknikoaren rola	4
3. Identitate korporatiboaren eta entregatzeko erabilera	4
4. Komunikazioaren alderdiak	4
5. Ebaluaketa	4
6. Datu pertsonalen eta ikus-entzunezko edukien erabilera	5
7. Segurtasuna	5
8. Kotsultak eta zalantzak	5

Ondoren zehazten diren jarrabideen helburua [thinking Fadura](#) prozesuarekin lotutako proiektuenenpresa hornitzaile ezberdinen lana koordinatzea da, garatzen ari den jarduketa-multzoarekiko koherentzia bat bermatze aldera.

1. Irizpideak

Egiten diren esku-hartze guztiak *thinking Fadura* prozesuan definitutako irizpide orokorrak errespetatuz, haiekiko lerrokatu beharko dira:

- **Gobernu Irekia:** Gobernu Irekia esaten zaio herritarrek politika publikoen erdigunean jartzen dituen praktika multzoari. Getxo Kirolaren ekimenez datorren irekitasun hau gardentasuna, zeharkakotasuna, partaidetza eta lankidetzaren zutabetan sostengatzen da. Horretarako, premiazkoa da herritarrei ahalmena eskualdatzea ko-erantzukizunaren ariketarako, funtsezko bi helbururen arabera: baterako moduan botere publiko handiagoa sortzea eta udaletako kirol politiken kudeaketari dagokionez ongizate komuna sustatzea.
- **Gardentasuna:** gardentasunaren ariketak barne hartu beharko ditu bere alderdi pedagogikoa, herritarren eskura jartzea emaitzaren datuak eta prozesuaren segimendua eta urte bi hauetan zehar Idazkaritza Teknikotik eskuratuz joaten diren emaitzak.
- **Partaidetza:** gauzatuko diren partaidetza prozesuetan, aurrez haurreko esparruan zein digitalean, lankidetzaren metodologia egokiak erabiliko dira prozesuak kalitatezkoak eta arestian eginiko lanarekiko koherenteak direla bermatzearen.
- **Kontu ematea:** partaidetza fase ezberdinen trazabilitatea ahalbidetzen duten mekanismoak eta erremintak ezarriko dira.
- **Komunikazioa:** komunikazioa alderdi estrategiko bat da *thinking Fadura* prozesuan, ez bakarrik parkea eta bere instalazioak birdiseinatzeke jarduketak ezagutzera emateko, prozesua eta bere emaitzak gardentasunez azaltzeko, baita hari buruzko kontaketa bat eraiki eta getxotarrei balio publiko bat eskaintzeko ere.
- **Arintasuna:** zein nagusituko den bai informazioa jasotzerakoan, herritarrekin egiaztatu, eztabaidatu eta ko-diseinatzerakoan eta bai adosten joaten diren jarduerak abiarazterakoan. Horretarako, lan-metodologia bat erabiliko da zeinek barne hartuko dituen ikaskuntza eta sistematizazioa hala nola orientabidea eta emaitzak. Lehen unetik ekoiztutako dokumentazioak entregatzeko produktuaren forma hartzen du; 'Atzerabegirako' eta ebaluaketa partzialeko bilera bakoitzak entregatzeko produktuak eguneratu eta hedatzen ditu. Horrela, ez da beharrezkoa izango Idazkaritza Teknikoaren amaiera arte itzarotea proiektuaren produktuak eskuratzeko.
- **Esperimentazioa.** Abian jarriko dira laborategiak esaterako eremu edo antolamendu erlazional modura zeinetatik, komunitate bateko kide ezberdinen artean, erronka zehatzak lantzen diren testatzeko eta, arrakastaren kasuan, eskala handiagoan zabaldu eta/edo beste inguruntzara eramateko. Horrela, herritarrek politika publikoetan edo produktu edota zerbitzu ezberdinak jasotzeko egoeran subjektu pasiboak izateari utziko

diote, euren irtenbide propioen protagonistak eta ekoizle arduratsuak bihurtzeko. Laborategi irizpidea sostengatzen da bi premisatan:

- **Berrikuntza eta transferentzia.** Prototipoaren logika eta praktika egokien transferentzia eta ikaskuntza barne hartuz ebaluaketa eta sistematizazio mekanismoak erabiliz.
- **Ingurune kontrolatua.** Laborategi bakoitza arriskua mugatzen duen eta ezjakintasun maila bat bideratzea ahalbidetzen duen esperimentu bat bihurtzen da, zeinetan zitatuko diren pertsona adituak, interesdun taldeak edo pertsona kaltetuak, erabaki ahalmena duten agenteak eta talde bideratzaile bat.
- **Bidezko Jasangarritasuna.** Bat egiten dugu komunitateko taldeek eta tokiko gobernuek jada aurreratu diguten "Bidezko Jasangarritasunak" terminoarekin, Habitat III ¹ eta ONU-ren agenda Urbano berria tarteko. Bidezko jasangarritasunek lau zutabe dakartzate hiri-antolamenduaren baitan:
 - Herritarren bizitza eta ongizatea hobetzea.
 - Orainaldiko eta etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzea, alegia, intra belaunaldien eta belaunaldi arteko ekitatea aldi berean ulertzea.
 - Justizia eta ekitatea bermatzea onarpena, prozesua, prozedura eta emaitza terminoetan.
 - Ekosistemen mugak eta planeta honen ahalmenen baitan bizitzeko beharra onartzea.

¹ <http://nua.unhabitat.org/uploads/Reportedelasciudades2016.pdf>

2. Idazkaritza Teknikoaren rola

Idazkaritza Teknikoak *thinking Fadura*-rako definitutako irizpide orokorrekiko aplikazioa eta errespetua zaintzen ditu .

Gainera bere ardurak dira:

- Herritarren partaidetzarekin lotutako ekintzak baliozkotzea.
- Informazio sistemen administrazioa, antolamendua, eguneraketa eta kudeaketa, entzute-sistema barne.
- Pertsona eta agente parte hartzaileekiko harremana kudeatu.
- Harremana tartean sartutako hornitzaileekin.
- Txostenen idazketa.
- Prozesu parte hartzaileen kudeaketa bere fase guztietan: informazioa, kontsulta eta/edo debatea, deliberamendua, ko-diseinua, exekuzioaren erantzuna eta segimendua.
- Komunikazio Planaren planteamendua eta garapena.
- Solasaldia beste agente eta proiektu garrantzitsu batzuekin.

3. Identitate korporatiboaren eta entregatzeko erabilera

- Aurkeztutako dokumentazio guztiak kontuan hartu beharko du honako [identitate korporatiboaren eskuliburua](#).
- Entregatzeko proiektuak bertsio editagarrian aurkeztu beharko dira, ahal bada Google Drive o Microsoft Word erabiliz.

4. Komunikazioaren alderdiak

- Sortutako dokumentazio publiko guztia euskeraz eta gaztelaniaz ekarri beharko da, euskera izanik azpimarratu beharreko hizkuntza nagusia.
- Enpresek testu edukiko proposamenak egin beharko dituzte garatu beharreko ekintzen hedapenerako eta deialdietarako.

5. Ebaluaketa

- Enpresaren ardura izango da ebaluaketa adierazleen bilketa egitea herritarren partaidetza inplikatzeko duten topaketa edo bilera moduko ekintza haietan guztietan.
- Idazkaritza Teknikoak datu bilketa honetarako beharrezko formularioak emango ditu.

6. Datu pertsonalen eta ikus-entzunezko edukien erabilera

- Herritarren partaidetzazko ekintza oro ikus-entzunezko moduan dokumentatu beharko da. Horretarako, enpresak baimen bat eskuratu beharko du irudia grabatzeko, idatziz, pertsona partaideen aldetik. [Esteka](#) honetan baimen hori eskuratzeko eredia deskargatu ahal da.

7. Segurtasuna

- Obra premien programa bat eskatzen duten proiektuetan barne hartzeko alderdi zehatzak:
 - Telekomunikazioko konektagarritasuna eta azpiegitura barne hartu eremua zerbitzu zentralekin eta WIFI-arekin konektatzeko.
 - Exekuzio proiektuan eremuko segurtasuna diseinatzen duten agenteekin egiaztatua txertatu behar da.
- Herritarren partaidetzazko eremuetan txertatu eta kontuan hartu beharreko alderdi zehatzak.
 - Fluxuak eta trafikoa.
 - Guneko eta eremuetako (orokorrak eta zehatzak) sarbideak eta segurtasuna identifikatu.
 - Kokapen/eremu/zerbitzu eta kanal bakoitza eskuratuko duten profilen datu-basea egiaztatu.

8. Kotsultak eta zalantzak

Edozein kotsultarako zuzendu zaitezke honako posta elektronikora: thinkingfadura@getxo.eus.